

ESKER ONEZ, ETORKIZUNARI BEGIRA



AGRADECIDOS, MIRANDO AL FUTURO

Biziaren Jainkoa: Bilboko Eleizbarrutiaren 75 urteak pozez eta esker onez ospatzen dihardugu.

Esker ona adierazo gura deusugu fede eta maitasunezko historia honetan partaide diran guztiengaitik. Urteotan, Zeu izan zara gure babes eta indar, eta etengabe deitu gaituzu alkarte ebanjelizatzaile izatera.

Aurrerantzean be, isuri eizu zure grazia gure gainera.

Zure Hitza lagun eta aintzat hartuta, zintzotasunez jardun daigula; parkatu eiguzuz gure hutsegiteak; ez eiguzu itzi etsipenean jausten; gidatu gaizuz beti Espiritu Santuaren argiaz.

Zure maitasun eta errukiaren lekuko izanez bizi eta borrokatu daigula eta, Bizkaian erromes doan Eleiza lez, munduan bakea, zuzentasuna eta senidetazuna gehitzen saiatu gaitzala.

Bedeinkatu eizuz gure alkarteetako fededun guztiak. Artzain, abade, diakono, lekaide, lekaima, misiolari zein laiko, Jainkoak gjaziari deusan maitasunaren zantzu izan gaitzala gure bizigiroetan.

Iragarteko, ospatzeko, zerbitzatzeko eta alkarte bizi eta abegitsuak sortzeko konpromisoa hartzen dogu, ahulenengan aparteko arreta jarritz.

Zuregan bat izan gaitzala eta zure Maitasunezko Espirituak adore emon deigula eta jakituriaz bete gaizala etorkizuneko erronkei aurre egiteko, gure egiteko guztiak zeure borondatea betez gauzatzea ahalbidetuz.

Nonahi eta beti, Aitagaz eta Semeagaz batean, gjaldi eta gjaldietan jarduten dozun Horri eskatzen deusugu.

Amen.

Dios de la Vida: celebramos con alegría y gratitud los 75 años de nuestra diócesis de Bilbao.

Te damos gracias por todas las personas que forman parte de esta historia de fe y amor. En este tiempo, tú has sido nuestro refugio y fortaleza, invitándonos a ser una Comunidad Evangelizadora.

Te pedimos que continúes derramando tu gracia sobre nosotros y nosotras.

Que tu Palabra nos ayude, Señor Jesús, a actuar con honestidad; perdónanos por las veces en las que nos hemos equivocado; no nos dejes nunca caer en el desánimo; guíanos siempre bajo la luz del Espíritu Santo.

Que allí donde vivamos y luchemos, lo hagamos como testigos de tu amor y tu misericordia y que, como Iglesia que peregrina en Bizkaia, sigamos construyendo un mundo más pacificado, justo y fraterno.

Bendice a las mujeres y hombres de fe de nuestras comunidades. Que, con sus pastores, sacerdotes, diáconos, vida religiosa, misionera y laicado, seamos en nuestros ambientes signos del amor de Dios por la humanidad.

Nos comprometemos a anunciar, celebrar, servir y crear comunidades vivas y acogedoras, con especial atención a las personas más frágiles.

Condúcenos a la unidad en ti y que tu Espíritu de Amor nos aliente y nos llene de sabiduría para afrontar los desafíos del futuro, buscando tu voluntad en todo lo que hacemos.

Esto te lo pedimos a ti, que obras en todo tiempo y lugar, en comunión con el Padre y el Hijo por los siglos de los siglos.

Amén.

